



YAKIN en geigarri

(PRO MANUSCRIPTO)

I (5-6) 1960

ERRI-ERITZIA

"Erri-eritzia [opinión pública] gizarte normal baten ondasun berezia da: izan ere, norberarekiko ta gizarteaganako beren joeraz kontzientzia duten gizarte-lagunen alkartasunetik dator eritzi au. Azkenean, bera baita edonun [...] gaurko gertakizun eta egoerak oien espirituan sortu duten berezko oiartzuna.

Erri-eritzi onen adigarririk ageri ez dan errialdean... ba-da aje gaizto bat, eritasunen bat, gizarte bizitzaren ez-bearren bat."

"Ikusita dago, ez dugu aitatu ere egiten beste jokaera bat: bidezko askatasuna bera ere erbesteturik daukan gizartean, erri-eritzia ixiltzea, alegia; or, agintea dutenen partiduen eritziak, nagusienak edo diktadoreenak bakarrik baitu bere abotsa entzumarazteko eskubiderik. Edozein kristaudentzat, erritarren eritzi ori itotzea edo ixilpe beartuan lotutzea jatorrizko giza-eskubidearen aurka joatea da, Jainkoak munduari ezarri dion ordena naastea."

"Benetan itxaro genuen, igaro ditugun neke gogorregi oiek bein-betiko jauntxokeri an lotsagarri onetatik askatzeko ikasbide izango zirela [...] baiña orregatik gure engaiñu au zuentzat baiña ere mingotsagoa izan zaigu."

"Gaur erri-eritzia deritzaigun ori ez da izena besterik, esanaigabeko izen utsa, burrunba bezelako zerbaít, eta ez gizartearen kontzientzian eta bertatik berez jaió ta esnatu dan oiartzuna."

"Gaur-eguneko gizonari atsegin zaizkio askatasun eta lasaitasuneko jokabideak. Askatasun ori, ordea, askotan ez da gizaki uts eta txiroen aurre-aurpegia besterik: barnean ttenttelkeria, eta ariman gezurra zuritzeko indarrrik-eza; pentsamendu-askatasuna lapurtuaz, "aizearen esanera dabillén kafiñabera" bezin auskor gizona biurtzeko, gaurko teknikaren bideak artez zuzentzen dakitenen indar-beartzeari kontra egiteko kemenik-eza."

"Erri-eritzia argitu ta zuzentzea dagokien gizonak maizegi, libertatez eta ondore onez ezer egiteko, eragozpideetan aurkitzen dira, batzuek beren borondate gaizto edo eskastasunagatik, besteak ezña edo kanpoko indarra bide dala."

"Erri-eritzia epaitzean, totalitarismuaren aurrez-aurre esitatz jartzen du Elizak

bere burua, Jauntxokeri ori, bere izatez, erritarren egizko eritzi libre baten etsaia baita derrior.

"Ain zuzen, aren izaera berak inperatzen baititu, Jainkoagandik izanik bi-zi-maillei dagozkien Jainkoaren ordena ta neurrizko autonomi auek."

"Erri-eritziaren morrontzara leialki jarri denak —gizarte-agintaritzaz edo prentsa bera izan— baztertu egin bear ditu gezur ta zirikatze gaiztoak. Ez aal da espiritu eta gogo jokaera au guda-giroaren uxatzaillerik benetakoena Baiña, beste aldetik, dalako erri-eritzi ori go-gez edo bearrez [goitik] bizkarreratua

denetik; gezur bidez, aurre-eritzi edo alderdikeriz, estilo-paltsoz abotsera ta kiñuen bitartez edo sumimena zirikatuz, gizonok geure aburu ta usteak oiñarrizkeko dugun eskubidea ametsezko biurtzean, inguru sargori eta gezur ta kaltezko bat sortzen da, eta onek, gutxi-ena uste dela, gertakizunen artean [...] ito ta loarazi egiten ditu gizonak, eta beren ondasunak arriskuratu ta baita beren odola paltsokeri ta gaiztakeriaren alde ixurtzera beartu ere. Benetan: erri-eritzi libertatez adierazten ez dan tokian, arrisku gorrian dago pakea."

PIO XII'ak Periodista katolikoeri
-1950'ko otsaillaren 17'an-

CONTRA FACTUM NON VALET ARGUMENTUM

B ETA V EUSKAL-ORTOGRAFIAN

Aurreko bi YAKIN'txoetan jardunaldi bat egin da gai onetzaz. Baiña, agi denez, emen ez diteke urrutira joan; onegatik emen diogun onen bidez amaitzen dugu eztabaida.

Andik eta emendik eskutitz gogor eta ain gogor ez diranak eldu zaizkigu, ta onela, argi dago, ez dezakegu tajuzko elkarriketarik egin. Beraz, gauzak bere lekuan apalatuaz, ona zer diogun:

1) "Galdera batzu" egin zitunak bere bosgarren puntuan A. Villasante'ren ituzpideaz galdetzen zuen. Galdera au egitea zillegi zitzaion noski, eta ez daukagu iñorekin asarratu bearrik.

2) "Erantzun naiez" lantxoan I'tar J.'k, Aita Villasante'ren eritzi eman zuen. I'tar J.'rena etzuen iñork eskatu, ta onegatik ezta onek bereatzaz ezer esan ere. Baiña iñor asarratu ez dakigun, zera esan dezakegu: I'tar J.'rena ez da bere lantxo artan argitaratua.

3) Gaiñerakoan, YAKIN'en idazleetako bakoitzak, gai ontan, bere irizpide ta jokabideak jarrai ditzazke.

YAKIN'en zuzendaritza oarra

BIZKAITAR BI'RI ERANTZUNA

1) Irigoien iaunari

"Nun nondik datorren errez ikusi leiteke" diñozu. —Ni baiñon abillago zara. Nik ez dot aen garbi ikusten.

"Gaur egunean aozko izkeran oraindik gutxi zabaldua da forma laburtu ori, noski", diñozu ere. —Napar-Guipuzkoetan

amarretatik bederatzik "nun" esaten dabela, Yon Etxaidek bere autortuten dau. [EUSKERA, 1960, 71-23, 1.º: "Erriak gaur-gaurkoz amartatik bederatzitan *dun*, *nun*... erabiltzen du. *Nuan* eta *nusen*, berriz (orobat, *duan-duen*) kaletarren batzuk erabilli lezakete, baiñan, ene ustez sermolarien